

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 17,00 horas del día 11 de abril de 2016, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Iñaki Xabier Yoller Urdiruz, D. Pedro Juan Karrika Narbaitz, D. Arkaitz Karrika Iribarren, D. Mikel Gaztelu Alonso y D. Francisco Javier Dufur Oharriz, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Luis De Potestad Tellechea, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure. Excusa su asistencia la concejala D. ^a Aneva Cilveti Loperena,

1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE SESIÓN DE 11 DE MARZO DE 2016.

La Corporación acuerda por unanimidad la aprobación del acta de sesión celebrada el días 11 de marzo de 2016.

2.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE EL 9 DE MARZO HASTA EL 6 DE ABRIL DE 2016.

Informa el alcalde Sr. De Potestad, del contenido de las Resoluciones de Alcaldía de 9 de marzo hasta el 6 de abril de 2016, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados.

3.- APROBACION INICIAL EXPEDIENTE DE CUENTAS 2015

Actúa el Ayuntamiento en funciones de Comisión Especial de Cuentas

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que da lectura del expediente de cuentas explicando lo más destacado del mismo e informando que de dicho expediente resultan unas obligaciones reconocidas netas por importe de 475.119,93 euros, un remanente de tesorería para gastos generales por importe de 115.732,48 euros y un resultado presupuestario tras las modificaciones y regularizaciones realizadas por importe de – 17.499,77 euros. Informa a su vez del acta de arqueo con unas existencias en caja a 31 de diciembre de 2016 de 217.877,25 €, así como de la deuda viva a 31 de diciembre de 2016 de 163.653,82 €. Por último, da lectura al informe sobre la situación económica financiera emitido por la Secretaria así como al plan económico financiero propuesto para el cumplimiento de la Ley de Estabilidad Presupuestaria. En relación con ello, informa de las negociaciones que con las diferentes empresas suministradoras se están llevando a cabo para rebajar precios y abaratar costes.

Tras lo cual, visto el expediente del Cierre de Cuentas de 2015, la Corporación acuerda por unanimidad:

1.-Aprobar la “Cuenta General” formada por la Intervención.

2.-Aprobar el “Informe de la Comisión Especial de Cuentas” y exponerlo al público en el tablón de anuncios el acuerdo por 15 días hábiles de conformidad con el artículo 242.3 de la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra.

4.- APROBACIÓN INICIAL PRESUPUESTO 2016.

Presenta el alcalde Sr. De Potestad, los presupuestos municipales para 2.016, que asciende a 520.733,93 €, informa que ha retirado de los mismos el proyecto Lindus II, a la espera de que se resuelvan las ayudas y una vez resuelto se estudiará como reorganizar y modificar el presupuesto. En cuanto a inversiones se ha contemplado la reforma de la escuela, el proyecto ruta de los Akelarres y proyectos que en base a la Ley

Foral de Mecenazgo Cultural dependen de los donativos que se reciban que son la puesta en valor del cementerio, Iturissa y la reforma de la iglesia parroquial.

Otro punto a tener en cuenta es la partida de ingresos relativa a la donación de los corporativos que servirá para hacer frente a parte de los proyectos que junto con la mano de obra gratuita de los propios concejales como señala el concejal Sr. Gaztelu, servirán para sacar adelante varios de los proyectos previstos en los presupuestos. En todo caso como señala el alcalde Sr. De Potestad son unos presupuestos equilibrados, que contienen el gasto y cumplen con las reglas de la Ley de Estabilidad Presupuestaria y que dado que la situación económica no es nada boyante serán realidad en función de la disponibilidad económica que se obtenga.

Debatidos los presupuestos, se acuerda por unanimidad, aprobar inicialmente las bases de ejecución así como los presupuestos para 2.016, procediendo a su exposición en el tablón de anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra de conformidad con la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra.

5º.- RATIFICACION APROBACION PRESUPUESTO Y ADJUDICACION INSTALACION DE CONTROL DE ACCESOS Y PRESENCIAS

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad, que manifiesta que si bien este punto se trató en la sesión anterior, es necesario volverlo a tratar y proceder a su ratificación ya que hasta no haber acordado la aprobación del presupuesto para el ejercicio 2016, no se debía haber tratado el tema.

- Se acuerda por unanimidad aprobar el siguiente presupuesto solicitado a Salto System al ser la oferta más ventajosa y que se desglosa de la siguiente manera:

-Sistema control accesos Ayuntamiento: 2066€ más IVA.

-Sistema control accesos Casa de Cultura: 4.573,55€ más IVA.

-Sistema control presencias: 967€ más IVA (propuesta abone la agrupación).

Total IVA incluido.....9203,93€

- Trasladar el acuerdo a Salto System para su conocimiento y efectos oportunos.

6.- MOCION ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad, que en relación con la Ley de Estabilidad Presupuestaria manifiesta su descontento y las limitaciones que la misma impone en este caso a las entidades locales para poder preparar, desarrollar y ejecutar los presupuestos. El Parlamento de Navarra ha aprobado una moción que estando de acuerdo con ella, la traslada al Ayuntamiento para su aprobación, dando lectura a la misma:

“La reforma del artículo 135 de la Constitución, promovida por el PSOE y el PP, consagra la absoluta prioridad de las obligaciones de la deuda (intereses y capital) sobre cualquier otro tipo de gasto público, lo que significa que los servicios públicos y los derechos que pretenden garantizar quedan supeditados a la satisfacción de los intereses de los inversores.

Aunque ha pasado relativamente desapercibida, en esa reforma, el equilibrio presupuestario de las entidades locales pasa a ser precepto constitucional, lo que representa una gravísima restricción de las Administraciones Locales.

Se trata de una previsión legal de gravísimas consecuencias para las decisiones de gasto público de todas las Administraciones Públicas, que se acentúa en aquello que afecta a las entidades locales, toda vez que las mismas, con esta modificación constitucional y la legislación que la desarrolla, se convierten en meras agencias de contratación de servicios públicos bajo unos presupuestos que las ahogan e impiden llevar adelante iniciativas de interés social, así como de inversiones públicas. La reforma constitucional del artículo 135 además supone una pérdida irreparable de soberanía nacional y de autonomía financiera de las diferentes administraciones territoriales. Y es que, ¿cómo se podrían renegociar unas mejores condiciones de pago con los acreedores del estado español si estos pueden parapetarse en un mandato de la constitución para negarse a ello? ¿Por qué no existe norma semejante de prioridad absoluta del pago de la deuda en otros países de la Unión Europea, paradigmáticamente en Alemania?

En desarrollo de este artículo constitucional reformado, la Ley Orgánica 2/2012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, establece un conjunto de normas (estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto, principalmente) orientadas a reducir el gasto público el prestaciones sociales y a impedir las inversiones públicas. Esta previsión legal impide, además de a las Administraciones Locales, a las Comunidades Autónomas elaborar presupuestos cuya previsión de gastos se relacione directamente con los ingresos previstos, teniendo que sujetarse, con pérdida evidente de su autonomía, a un coeficiente elaborado por el Ministerio de Economía y Competitividad. En el caso de Navarra, esta previsión legal supone un ataque directo a nuestro Régimen Foral, coartando severamente la autonomía fiscal, financiera y presupuestaria.

La Ley 27/2013 de Racionalización y Sostenibilidad de las Administraciones Locales está encaminada a convertir las Administraciones Locales en agencias de contratación de los servicios públicos a empresas privadas, dando soporte legal a las privatizaciones y a la corrupción. Esa Ley 27/2013 anula o reduce sustancialmente las competencias municipales en materias tan sensibles como la prestación de servicios sociales y de promoción y reinserción social, la educación, la cultura, la promoción de la mujer, la vivienda, la sanidad y la protección del medio ambiente.

La reforma del artículo 135 de la Constitución y las normas que la desarrollan cuestionan gravemente la viabilidad de los Ayuntamientos y Concejos, las administraciones más próximas a la ciudadanía. A su vez, representan un paso más en la laminación de las originarias competencias de Navarra en el ámbito de las Administraciones Locales.

Además, esta iniciativa también ha sido aprobada por el Parlamento de Navarra por lo que es importante que las entidades locales nos sumemos a esta petición.

A la vista de lo cual y estando conforme con dicha moción, se acuerda por unanimidad:

1. El Ayuntamiento de Auritz-Burguete insta al Gobierno del Estado, al Congreso de los Diputados y al Senado a la anulación de la reforma del artículo 135 de la Constitución y la derogación de las leyes 2/2012 y 27/2013.

2. El Ayuntamiento de Auritz-Burguete insta al Gobierno del Estado, al Congreso de los Diputados y al Senado al promover actuaciones conducentes a evitar que se alcance el objetivo perseguido por las normas referidas, a saber, la utilización de las administraciones locales para imponer la política de recortes y, finalmente, la desaparición de las mismas.

3. El Ayuntamiento de Auritz-Burguete acuerda trasladar este acuerdo a los grupos parlamentarios de Navarra así como a los representantes de Navarra en el Congreso de los Diputados y en el Senado.

7.- CONVOCATORIA SUBVENCIONES OBRAS COLEGIOS

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que a la vista de la Resolución 98/2016, de 25 de febrero de 2016, del Director General de Universidades y Recursos Educativos por la que se aprueba la convocatoria de subvenciones a los Ayuntamientos y Concejos de la Comunidad Foral de Navarra para la ejecución de proyectos de obras de mejora y remodelación de centros públicos de 2º Ciclo de Educación Infantil y Educación Primaria y mixtos de Pirmaria-ESO, informa de la necesidad, ya que desde hace años no se ha llevado a cabo inversión alguna, de acometer una serie de obras en las escuelas municipales, con el fin de tener por un lado, un lugar donde ubicar el gimnasio, y por otro, un comedor escolar que reúna las condiciones legales exigibles, ya que el actual comedor está en una situación irregular, además de eliminar humedades en los aleros, mejorar la carpintería y la accesibilidad al centro. Para ello ha encargado una memoria, y en base a la misma y con partida presupuestaria aprobada para ello, propone aprobar las obras y solicitar la subvención adjuntando la documentación correspondiente. La subvención máxima es de 50.000 euros, de los cuales por ser zona pirenaica pueden subvencionar hasta el 95%, no se incluye el IVA.

La Corporación por unanimidad acuerda:

1º.- Aprobar la memoria valorada redactada por ARQ Arquitectos y llevar a cabo las obras de remodelación y reforma de la Escuela Pública de Auritz/Burguete, en función del porcentaje de subvención que se conceda.

2º.- Solicitar la subvención correspondiente en base a la Resolución 98/2016, presentando en tiempo y forma la documentación exigida.

8.- CONVOCATORIA SUBVENCIONES INVENTARIO MUNICIPAL

El alcalde Sr. De Potestad informa de la publicación en el BON de la convocatoria la para la realización del Inventario Municipal de Bienes y Derechos y formación del Inventario Separado del Patrimonio Municipal del Suelo para los Ayuntamientos de Navarra. Que tanto la actualización de los inventarios como las ponencias de valoración son importantes de cara al estudio de la financiación del nuevo mapa local que se pretende aprobar ésta legislatura. Así mismo, informa de que ha contactado con las empresas Tracasa y con Elizalde Asesores para que presenten presupuesto del coste de dicho inventario.

Se acuerda por unanimidad en base a los presupuestos que se presenten, solicitar la subvención que corresponda en base a la Resolución 59/2016, presentado en tiempo y forma la documentación exigida en la convocatoria.

9.- CONTRATO ANIMSA

El alcalde Sr. De Potestad informa en relación con el cambio del programa de gestión de informática de Animsa a GIA (Caja Rural) y el nombramiento de Aezkoa Informática como asesora informática del Ayuntamiento aprobados en la última sesión, que en el año 1997 se firmó un contrato de asesoría informática con Animsa en donde una de las cláusulas señala que la rescisión del contrato de por las partes debe ser notificada con un mes de antelación y si bien, es verdad, que por parte de Animsa, tal y como nos lo han comunicado verbalmente, no van a poner impedimento alguno a pesar de no haber cumplido con dicho plazo, se debe formalmente tomar el acuerdo de rescisión del mismo, comunicárselo a Animsa y proceder en ese momento al traspaso de claves, contraseñas y demás documentación precisa para llevar a cabo el cambio de servicio de una empresa a otra, todo ello con el fin de garantizar el cumplimiento de la normativa y obligaciones que en materia de seguridad Animsa contrajo con el Ayuntamiento. Así mismo, informa que va a mantener una reunión con responsables de Animsa para resolver el asunto. Y finalmente entendiendo que la rescisión de dicho contrato no es otra cosa que un tema de oferta y mercado pudiendo ser revisado cada cuatro años, quiere agradecer a Animsa el que no se exija el cumplimiento del plazo mencionado y el servicio prestado durante todos estos años.

Pregunta el concejal Sr. Karrika Narbaitz si la prestación de servicios con la nueva adjudicación va ha ser igual. Respondiéndole el alcalde Sr. De Potestad que con la nueva contratación se mantienen las mismas prestaciones y que se consigue un ahorro económico al pasar de pagar alrededor de 3.500 € a 1.200 €.

Se acuerda por unanimidad:

- Rescindir el contrato firmado con Animsa respecto al servicio general de informática, agradecer los servicios y trato prestados hasta la fecha y trasladarles el acuerdo para su conocimiento y efectos oportunos.

- IRATI IRRATIA

Por vía de urgencia y por unanimidad, visto presupuesto presentado por Irati Irratia, de conformidad con convenio firmado al efecto, se acuerda aprobar la partida que corresponde aportar al Ayuntamiento de Auritz/Burguete de 450 €.

10- INFORMACION VARIA

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que informa sobre los siguientes asuntos:

Elecciones Auñamendi

El alcalde Sr. De Potestad informa que el día 16 de marzo se celebró la elección de Presidente y Vicepresidente de la Mancomunidad de Servicios Sociales Auñamendi siendo elegido Presidente él mismo y Vicepresidente Patxi Encaje, alcalde de Abaurrea Alta.

La Corporación se da por enterada.

Visita Consejera Sra. Beaumont

Informa el alcalde Sr. De Potestad de la visita realizada el día 18 de marzo por la Consejera del Departamento de Presidencia, Función Pública, Interior y Justicia Sra. Beaumont, Agustín Gastaminza, Director General de Interior, y Victor Rubio, jefe del Servicio de Bomberos, a Auritz/Burguete y a las instalaciones del parque de bomberos

de la Villa, visita donde se hizo un balance actual de las mencionadas instalaciones y de sus necesidades. Señalando que se está trabajando desde Función Pública para conseguir mejores condiciones, entre ellas un aumento de plazas, si bien la situación económica y la legislación del Estado, que es vinculante, lo complican.

Se abre un debate entre los corporativos donde el concejal Sr. Karrika Narbaitz manifiesta que todas aquellos accidentes que se producen por imprudencias como es el caso de muchos peregrinos a pesar de estar avisados, se deberían cobrar y bien cobrados.

La Corporación se da por enterada.

Tararai

Toma la palabra el alcalde Sr. De Potestad que informa que el Tararai tuvo lugar el 27 de marzo, se recaudaron 489,79 euros de los cuales 24,56 euros se gastaron para merienda quedando un saldo neto de 465,22 euros. Son los propios niños quienes deciden su destino y este año han planteado la compra de cuerdas para hacer pulseras y para arreglo sala Mendixuri donde se mejorará el revoco que se puede hacer en auzolan.

La Corporación se da por enterada.

Transpyr 2016

El alcalde Sr. De Potestad que en junio en fecha próxima a las fiestas va a tener lugar una nueva edición de la Transpyr 2016 con dos novedades, una, el adelanto en las fechas y otra el poder disponer de la casa de cultura para la entrega de premios y donde el Ayuntamiento como detalle hará entrega de pañuelos.

Reordenación Casa Cultura

Con motivo de la reordenación de la Casa de Cultura, el alcalde Sr. De Potestad informa que gracias al trabajo de los Concejales Srs. Karrika Narbaitz, Yoller y Gaztelu, se han reubicado algunos de los cuadros de fotografías antiguas que llevaban años en un cuarto de la casa de cultura apilados, y se han puesto en las paredes del rellano de las escaleras de acceso al Ayuntamiento, que son estos pequeños detalles los que demuestran su dedicación al Ayuntamiento, agradeciéndoles la labor que están llevando a cabo.

La Corporación se da por enterada.

Ruta de los Akelarres

El concejal Sr. Karrika Iribarren, informa que se está trabajando en el proyecto de “La Ruta de los Akelarres”, página web, rutas, señalizaciones senderismo, circuitos para enduro y BTT, etc. Viendo precios y costes, que requerirán previamente de autorización por Medio Ambiente. Empezando poco a poco a poco, sin tocar monte, marcando senderos con azadas, utilizando voluntarios y sin impacto de ningún tipo.

La Corporación se da por enterada.

11.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Toma la palabra el concejal Sr. Karrika Narbaitz, que pregunta sobre Auñamendi y la escuela infantil de 0 a 3 años, contestando el alcalde Sr. De Potestad que el Ayuntamiento de Ezcaroz escribió un correo explicando su situación y que la FNMC ha creado un grupo de trabajo para este tema del que él forma parte y que ya está convocado debido a que es un asunto complejo porque cada zona tiene sus problemas.

Se entiende que son dos zonas con características parecidas y por lo tanto la normativa debería ser similar a las comarcas de Roncal, Salazar y Auñamendi, aunque luego cada uno tenga su escuela. Además entiende que se debe valorar las peculiaridades y la diversidad existente en Navarra.

El concejal Sr. Gaztelu pregunta si se ha llevado a efecto el acuerdo adoptado en la anterior sesión sobre Bunkers, informándole la Secretaria que ya está comunicado el acuerdo y se va a proceder al pago.

El concejal Sr. Yoller pregunta si hay partida en el presupuesto para mantenimiento de la Iglesia y cómo es esto si la iglesia pertenece al Arzobispado, preguntando si se paga la contribución por los inmuebles inmatriculados y en concreto por la casa parroquial.

Respondiendo el alcalde Sr. De Potestad que desconoce en ese momento como está la situación pero que la partida del presupuesto se debe a gastos generales como calefacción o mantenimiento de instalaciones de la iglesia que se pagan por acuerdos antiguos, aunque no obligan al ayuntamiento, y que si están inmatriculadas en el registro de la propiedad y hay dudas se debería abrir un expediente de investigación. En cuanto al pago de la contribución, si tienen uso religioso están exentos del pago, aunque a su entender la casa parroquial si debería pagar si no lo hace ya.

El concejal Sr. Dufur matiza que la casa parroquial ha sido pedida por varias parejas para quedarse a vivir pero que el Arzobispado siempre la ha alquilado a gente de fuera y respecto a lo que dice el Sr. Alcalde, poco se puede hacer pues el alcalde D. Exuperancio Aos hizo las escrituras de la Casa Parroquial en favor del Arzobispado.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 18,00 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean 2016ko apirilaren 11n, 17:00etan, Udala bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Iñaki Xabier Yoller Urdiroz, Pedro Juan Karrika Narbaitz, Arkaitz Karrika Iribarren, Mikel Gaztelu Alonso eta Francisco Javier Dufur Oharriz, bilkuraburu alkatea, Luis de Potestad Tellechea izan zen, eta idazkaria, Marisol Ecurra Irure. Aneva Cilveti Loperena zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.- 2016KO MARTXOAREN 11KO BILKURAREN AKTAREN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2016ko martxoaren 11n egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2016ko MARTXOAREN 9tik APIRILAREN 6a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, de Potestad jnk., 2016ko martxoaren 9tik apirilaren 6ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

3.- 2015. URTEKO EKITALDIAREN KONTUEN ESPEDIENTEA. HASIERAKO ONESPENA.

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta kontuen espedientea azaldu du, garrantzikoena azpimarratuz eta esanez onartutako obligazio garbiak 475.119,93 eurokoak direla, gastu orokorretarako diruzaintzako gordekina 115.732,48 eurokoa eta egindako aldaketa eta erregularizazioen ondotik gelditzen den aurrekontua – 17.499,77 eurokoa dela. Modu berean kontaketa aktari buruzko informazioa eman du eta esan du 2015eko abenduaren 31n kutxan dagoena 217.877,25 € dela eta 2015eko abenduaren 31n zegoen zor bizia 163.653,82 €. Bukatzeko egoera ekonomikoari buruz idazkariak egin duen txostena irakurri du bai eta Aurrekontuen Iraunkortasun legea betetzeko plana ere. Horrekin lotuta, jakinarazi du enpresa hornitzaileekin prezioak jaitsi eta kostuak merkatzeko saiakerak egiten ari direla.

Beraz, 2015eko Kontuen Hertsiketaren espedientea ikusita, Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Kontuhartzaitzak egindako “Kontu Orokorra” onartzea
- 2.- “Kontuen Batzorde Bereziaren Txostena” onartzea eta jendaurrean paratzea iragarki oholean 15 egun balioduneko epean, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 242.3 artikulua dioenarekin bat eginez.

4.- 2016ko AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA

Alkateak, de Potestad jnk., 2016ko udal aurrekontuak aurkeztu ditu, 520.733,93 €, eta Lindus II proiektua kendu duela dio diru-laguntzen afera argitu arte eta orduan ikusiko da aurrekontua nola berrantolatu eta aldatu ahal den. Inbertsioei dagokionez, eskola berritzea, Akelarren ibilbidearen proiektua eta Kultur Mezenazgoaren Foru Legearen arabera emango den diruaren bidez martxan jar daitezkeen proiektuak, besteak beste, hilerriaren balioztapena, Iturissa eta eliza berritzea.

Kontuan hartu beharreko beste gai bat udalkideek eman duten diruarena da, aurrekontuetan aurreikusitako proiektu batzuk aurrera ateratzeko erabiliko baita, zinegotziek beraiek doan egingo dituzten lanekin batera. Dena den alkateak, de Potestad jnk., dioten moduan, aurrekontu orekatuak dira, gastua bere horretan mantendu eta Aurrekontuen Egonkortasunaren Legeak ezarritakoa betetzen baita, eta egoera ekonomikoa oso ona ez denez, une bakoitzean dagoen diruaren arabera gauzatuko dira.

Aurrekontuak eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da, 2016ko aurrekontua gauzatzeko oinarriak zein aurrekontuak hasiera batean onartzea eta iragarki oholean zein Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen arabera.

5.- SARBIDEEN ETA PRESENTZIEN KONTROL SISTEMAREN AURREKONTUAREN ETA ADJUDIKAZIOAREN ONESPENAREN BERRESPENA

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta erran du nahiz eta gai honetaz aurreko bilkuran mintzatu, beharrezkoa dela berriro ekitea eta berrestea, 2016ko aurrekontua onartu arte ez zelako gaiaz mintzatu behar izan.

- Aho batez erabaki da honako aurrekontua onartzea, Salto Systemek aurkeztu duen eskaintza hoberena baita; hona hemen:

-Udaletxeko sarbideen kontrol sistema: 2066 € gehi BEZ.

-Kultur Etxeko sarbideen kontrol sistema: gehi BEZ.

-Presentzien kontrol sistema: 967 € gehi BEZ (batasunak ordaintzeko proposamena)

Guztira BEZ barne 9203,93 €

- Hartutako erabakia Salto System delakoari jakinaraztea, jakin dezan eta dagokion ondorioetarako.

6.- AURREKONTUEN EGONKORTASUNAREN MOZIOA

Alkateak, de Potestad jnk. Hitzak hartu du eta Aurrekontuen Egonkortasunaren Legeari buruz dio ez dela bere gustukoa eta muga handiak jartzen dizkiela toki entitateei aurrekontuak prestatu, garatu eta gauzatzeko. Nafarroako Legebiltzarrak moztio bat onartu du eta harekin ados dagoenez, Udalarari onartzea proposatu dio; hona hemen:

“Konstituzioaren 135. artikulua berriketaren bidez, PSOEk eta PPKk sustatua, zor-obligazioak (interes eta kapitala) beste edozein gastu publikoren gainetik jartzen dira, zerbitzu publikoak eta bermatu nahi diren eskubideak inbertsoreen interesen menpe utziz.

Nahiz eta oharkabean egin den, toki entitateen aurrekontuen oreka konstituzioaren agindua izatera iritsi da, eta horrek Toki Administrazioentzako murrizketa larria dakar. Legezko aurreikuspen horrek ondorio larriak ditu Administrazio Publiko guztien gastu publikoa erabakitzerakoan, are gehiago toki entitateei dagokienean, konstituzioaren aldaketa horrek eta hura garatzen duen legeak, toki entitateak zerbitzu publikoen kontratazio agentziak bihurtzen dituelako, itolarrian jartzen dituzten aurrekontuen menpe eta interes sozialeko ekimenak zein inbertsio publikoak aurrera eramateko oztopo handiak jarri. 135. artikulua erreformak nazio burujabetzaren bai eta administrazio desberdinen finantza-autonomiaren galera konponezina dakar. Zeren eta, nola negoziatu ahal dira ordaintzeko baldintza hobetoak Espainiako estatuko hartzekodunekin beraiek konstituzioaren agindua delako argudioaren babesa baldin badute? Zergatik Europako Batasuneko beste herrialdeetan, Alemanian paradigmatikoki, ez dago zorra ordaintzeko erabateko lehentasuna ezartzen duen araudirik?

Konstituzioaren artikulua berritu hori garatuz, Aurrekontuen Egonkortasuna eta Finantzen Jasangarritasuneko 2/2012 Lege Organikoak, araudi bat ezartzen du (aurrekontuen egonkortasuna, finantzen jasangarritasuna eta gastuen erregela, nagusiki), gastu publikoa eta gizarte laguntzak murrizteko eta inbertsio publikoak oztopatzeko. Legearen aurreikuspen horrek ez die uzten ez Toki Administrazioei ez eta Komunitate Autonomoei ere gastuen aurreikuspena zuzenean diru-sarreraren aurreikuspenarekin lotzen dituzten aurrekontuak prestatzen, Ekonomia eta Lehiakortasuna Ministerioak egindako koefiziente bati lotzen dituelako, eta horrek, noski, bere autonomiaren galera dakar. Nafarroaren kasuan legezko aurreikuspen horrek gure Foru Erregimenari zuzenean erasotzen dio, autonomia fiskala, finantzarioa eta aurrekontuena gogor murriztuz.

Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak Toki Administrazioak kontratazio agentzia bihurtuko ditu, zerbitzu publikoak enpresa pribatuei emanez, pribatizazioei eta ustelkeriari legezko babesa emanez. 27/2013 Legeak udalen eskumenak deuseztatu edo murrizten ditu, gehienbat sentiberak diren gaien alorretan, besteak beste gizarte zerbitzuen alorrean, gizartearen sustapena eta gizarteratzeko aferetan, hezkuntzan, kulturean,

emakumearen sustapenean, etxebizitzan, osasun arloan eta ingurumena babesteko arloan.

Konstituzioaren 135 artikulua eta hura garatzen duten arauen erreformek udalen eta kontzejuen bideragarritasuna zalantza jartzen dituzte, horiek direnean jendearengan hurbilen dauden administrazioak. Aldi berean Nafarroako Toki Administrazioen alorrean dituen eskumenen galeran aurrerapausoa dakar.

Eta gainera, ekimen hau Nafarroako Legebiltzarrak ere onartu du, beraz, garrantzizkoa da toki entitateok eskaerarekin bat egitea.

Horiek horrela eta mozioarekin ados egonik, aho batez erabaki da:

1. Luzaideko Udalak eskatzen dio Estatuko Gobernuari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari Konstituzioaren 135 artikulua berritzeko martxan dagoen prozesua bertan behera uztea eta 2/2012 eta 27/2013 legeak indargabetzea.
2. Luzaideko Udalak eskatzen dio Estatuko Gobernuari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari aipatutako arauak dituzten helburuak lor ez daitezten behar diren ekimenak sustatzea; helburu horien artean, besteak beste, murrizketen politikaren bidez toki administrazioak erabiltzea, horien desagerpena lortuz daudela.
3. Luzaideko Udalak erabaki du honako erabakia Nafarroako legebiltzarreko taldeei jakinaraztea, bai eta Nafarroako Diputatuen Kongresuan zein Senatuan dituen ordezkariak ere.

7.- IKASTETXEETAN OBRAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendari Nagusiak 2016ko otsailaren 25ean emandako 98/2016 Ebazpena ikusirik, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntza-DBHko ikastetxeak hobetu eta birmoldatzeko obra proiektuak gauza ditzaten, jakinarazi du duela urte asko ez dela inbertsiorik egin eskolan, eta beharrezkoa dela hainbat obra egitea gimnasioa jartzeko alde batetik eta bestetik legeak eskatzen dituen baldintzak beteko dituen eskola-jantokia, oraingoa egoera irregularrean baitago, eta hortaz gain teilatu-hegaleko hezetasuna kendu eta zurgintza zein ikastetxeko irisgarritasuna hobetzea. Hartara, memoria bat eskatu du eta horren arabera eta onetsitako aurrekontu-saila kontuan hartuz, obrak onartzea eta diru-laguntza eskatzea proposatu du. Gehieneko diru-laguntza 50.000 eurokoa da, eta Pirinioko eremuan gaudenez, %95a arte laguntzeko aukera dago, BEZ kanpo.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- ARQ Arquitectosek idatzitako memoria balioztatua onartzea eta Aurizko eskola publikoa birmoldatu eta berritzeko lanak egitea, emango duten diru-laguntzaren arabera.
- 2.- Diru-laguntza eskatzea 98/2016 Ebazpenaren arabera, eskatutako dokumentazioa ezarritako epean eta moduan aurkeztuz.

8.- UDAL INBENTARIOA EGITEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

Alkateak, De Potestad jnk., jakinarazi du NAO-n deialdia argitaratu dela Nafarroako udalek ondasun eta eskubideen udal inbentarioa egiteko eta udalaren lurzoru ondarearen

inventario bereizia prestatzeko. Inventarioak gaurkotzea zein balorazio ponentziak garrantzizkoak direla legegintzaldi honetan onartu nahi den tokiko mapa berriaren ikerketa finantzatzeko. Modu berean jakinarazi du Tracasa eta Elizalde Asesores enpresekin harremanetan jarri dela inventarioa egiteko aurrekontua aurkez dezaten. Aho batez erabaki da, aurkeztuko diren aurrekontuak kontuan hartuz, diru-laguntza eskatzea 59/2016 Ebazpenaren arabera, deialdian eskatutako dokumentazioa epean eta ezarritako eran aurkeztuz.

9.- ANIMSAREN KONTRATUA

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du informatika programen kudeaketa Animsatik GIARA (Rural Kutxa) aldatu dela eta Udalaren informatika arloko aholkularitza Aezkoa Informatikari eman zaiola, azkeneko bilkuran onetsitakoaren arabera, eta 1997an kontratua sinatu zela Animsarekin eta haren klausula batean dio kontratua bertan behera utzi baino hilabete lehenago jakinarazi behar dela, eta nahiz eta Animsak trabarik ez duen jarriko, kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu behar dela, Animsari jakinarazi eta pasahitza eta gainerako dokumentazioa enpresa batetik bestera pasatu behar dela, hori guztia Animsak Udalarekin segurtasunaren arloan sinatutakoa betetzeko. Modu berean jakinarazi du bilera egin behar duela Animsako arduradunekin gaia konpontzeko. Eta azkenik, kontratua bertan behera uzteko erabakia eskaintza eta merkatuaren gaiarekin loturik dago, lau urtean behin berrikusi ahal delako, eta Animsari eskertu nahi dio aipatutako epea betetzea ez eskatzeagatik bai eta urte hauetan emandako zerbitzua ere.

Karrika Narbaitz zinegotziak galdetu du adjudikazio berriaren bidez zerbitzuak berdin emango diren. Alkateak, de Potestad jnk., erantzun dio kontratazio berriarekin zerbitzu berdinak mantentzen direla eta dirua aurrezten dela, 3.500 € ordaintzetik 1.200 € ordaintzera pasatuko baita.

Aho batez erabaki da:

- Animsarekin informatika zerbitzu orokorra jasotzeko sinatutako kontratua bertan behera uztea, orain arte eman duten zerbitzua eta tratua eskertzea eta erabakiaren berri ematea jakinaren gainean egon eta behar diren ondorioak sor ditzan.

- IRATI IRRATIA

Irati Irratiak aurkeztu duen aurrekontua ikusirik eta sinatutako hitzarmenarekin bat eginez, urgentziaz eta aho batez, erabaki da Aurizko Udalak jarri behar duen dirua, 450 €, onartzea.

10- BESTERIK

Alkateak, de Potestad jnk., hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

Auñamendi Mankomunitateko kargu-hautaketak

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du martxoaren 16an Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko Presidente eta Presidenteorde izendatu zituztela, eta bera izan dela presidente kargurako hautatua eta Patxi Encaje, Abaurregainako alkatea, presidenteorde.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Beaumont kontseilariaren bisitaldia

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du martxoaren 18an Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Kontseilaria, Beaumont a., Barneko Zuzendari Nagusia, Agustin Gastaminza, eta Suhiltzaileen Zerbitzuko nagusia, Victor Rubio, Auritzera etorri zirela eta suhiltzaileen parkea bisitatu zutela, instalazioen egoera eta dituen beharrak ezagutzeko. Eta gaineratu du Funtzio Publikotik baldintza hobekak lortzeko lan egiten ari direla, besteak beste, lanpostu gehiago, baina egoera ekonomikoak eta Estatuko legeek, lotesleak direnez, gaia zailtzen dute.

Eztabaida sortu da eta Karrika Narbaitz zinegotziak dio arduragabekeriengatik, gehienbat erromesen kasuan, gertatzen diren istripu guztien gastuak kobratu behar zitzaizkiela, eta ongi gainera.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Tararai.

Alkateak, de Potestad jnk. Hitza hartu du eta jakinarazi du martxoaren 27an egindako Tararaian 489,79 € bildu zirela, horietatik 24,56 meriendan gastatu zirela eta 465,22 € gelditu direla. Haurrek erabaki dutela diru horrekin sokak erostea eskumuturrekoak egiteko eta Mendixuri gela hobetzea, horretarako auzolana eginez.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Transpyr 2016

Alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du festen daten inguruan Transpyr 2016 lasterketa egiten dela, eta alde batetik aurrekoetan baino lehenago eta bestetik kultur etxean sariak eman nahi dituztela, eta Udalak zapiak emango dizkiela oroigarri gisa.

Kultur Etxeko berrantolaketa

Kultur Etxeko berrantolaketa dela eta, alkateak, de Potestad jnk., jakinarazi du Karrika Narbaitz, Yoller eta Gaztelu zinegotzietan esker, kultur etxeko gela batean pilatuta zeuden argazki zahar batzuen koadroak jaso eta udaletxeko eskaileretako paretetan jarri direla, eta egiten duten eta egiten ari diren lana eskertu nahi die.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Akelarreen Ibilbidea

Karrika Iribarren zinegotziak dio “Akelarreen Ibilbidea” izeneko proiektua lantzen ari dela, haren web orria, ibilbideak, seinaleak, BTTrako ibilbidea, eta abar. Eta horren prezio eta kostuak aztertzen ari direla eta Ingurumeneko Departamentuko baimena beharrezkoa izanen dela. Hasiera batean poliki hasiko direla, zuhaitzak ukitu gabe, ibilbideak aitzurrez seinaleztatuz, eta boluntarioek egiten dutela lan hori, inolako inpakturik sortu gabe.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

11.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Karrika Narbaitz zinegotziak hitza hartu du eta Auñamendi eta 0-3 urteko eskolari buruz galdetu du, eta alkateak, de Potestad jnk. Erantzun du Ezkarozeko Udalak bere egoera azaltzeko mezua bidali zuela eta NUKFk lantalde bat sortu duela gai honetarako eta bera talde horretan dagoela eta gaia korapilatsua dela, eskualde bakoitzak bere arazoak dituelako.

Antzeko ezaugarriak dituzten bi eskualde dira eta arautegia antzekoa izan beharko luke Erronkari, Zaraitzu eta Auñamendiko kasuan, nahiz eta gero bakoitzak bere eskola

eduki. Gainera uste du Nafarroan dauden ezaugarri bereziak eta antzekotasuna baloratu beharko liratekeela.

Gaztelu zinegotziak galdetu du aurreko bilkuran Bunkerren proiektuari buruz hartutako erabakia gauzatu den eta idazkariak erantzun dio erabakia jakinarazi dela eta ordainduko dela.

Yoller zinegotziak galdetu du aurrekontuan dirurik dagoen elizako mantentzerako eta hori nola izan daitekeen eliza artzapezpikukoa baldin bada, eta galdetu du kontribuzioa ordaintzen duen, parrokiako etxearena hain zuzen ere.

Alkateak, de Potestad jnk., erantzun du ez dakiela gaur egun egoera zein den, baina aurrekontuan aurreikusitako dirua berogailuari eta elizako zenbait instalazioen mantentzeari dagokiola, hori aspaldiko erabakietatik datorrelako, nahiz eta udalari behartu ez, eta jabetza erregistroan eskrituratuak baldin badaude eta zalantzak egonez gero, ikerketa egiteko espedientea ireki beharko litzatekeela. Kontribuzioaren ordainketari dagokionez, erabilera erlijiosoa baldin badute ez dute kontribuziorik ordaindu behar, baina uste duela parrokiako etxeak ez badu ordaintzen ordaindu beharko lukeela.

Dufur zinegotziak zehaztu du parrokiako etxea herriko zenbait bikotek eskatu duela bertan bizitzen gelditzeko, baina artzapezpikuak beti kanpoko jendeari alokatu dio eta alkateak dionari buruz gutxi egin daitekeela dio, alkate izan zen Exuperancio Aosek parrokiako etxeko eskriturak artzapezpikuaren izenean egin zituelako.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 18,00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.